

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

Mugikortasun agenteen lan egoerari buruzkoa

Reyes Carrere Zabalak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko otsailaren 14an Zerbitzu Orokorreko Batzordean jorratutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Mugikortasun saila 2009an jarri zuen martxan Donostiako Udalak. Hasieran zerbitzuak hiru auzo baino ez zituen artatzen (Gros, Parte Zaharra eta Erdialdea). Eta horretarako, 60 langile berri kontratatu behar izan ziren. Gaur egun, 13 urte geroago, mugikortasun-zerbitzuak Donostiako ia auzo guztietara zabaldua dago, Igeldo eta Altza izan ezik; eta taldea 77 agentera igo da, hasieran baino 17 gehiago. Langile finko horiei udako errefortzuetarako eta ezohiko ekitaldietarako behin-behineko kontratuak gehitu behar zaizkie.

Udaleko ordezkari sindikalen arabera, desproporzio handia dago gaur egun artatu behar diren eremuen (hasieran baino 15 auzo gehiago) eta plantillan dauden agenteen kopuruaren artean. Izan ere, 60 langilerekin hasi baziren hiru auzotan, une honetan, 18 auzo artatu behar dituzte, bakarrik 17 agente gehiagorekin.

Langileak desproporzio honen ondorioak salatzen aritu dira azken hilabeteetan. Lan-karga handiagoaren eta plantilla eskasaren konbinazio horrek langileen lan-baldintzen prekarizazioa dakarrela eta, aldi berean, zerbitzuaren kalitatean eragina negatiboa duela diote. Izan ere, ez dira behar bezala betetzen urteroko laneko bajak, lanaldi-murrizketak edo kontziliazioak. Ondorioz, auzo guztiak artatzeko zailtasunak zerbitzuaren kalitatean eragina du.

Sindikatuetaordezkarien hitzetan, Udal Gobernuaren egoera horren jakitun da duela urtebete baino gehiagotik. Eta sindikatuak, negoziatzeko ahalegina egin arren, ez dute jaso Gobernuaren aldetik akordiotarako jarrera argia.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Batzordean, gobernuari gatazka honi buruzko interpelazioa aurkeztu genion. Jaso genituen erantzunetan, zinegotzi delegatuaren kontraesanak agerian geratu ziren, eta, gainera, ezer gutxi argitu zuen. Izan ere, agente nahikorik ez dagoela aitortu arren, esan zuen ez dutela lan-gainkargarik. Era berean, lan-baldintzekin lotutako lan kontuei dagokienez, ezer berririk ez: balorazioa, kontziliazioa, ordainsariak edo lan-bajak hainbat forotan negoziatzen ari direla.

Beraz, Mugikortasun departamendurako ez zuen premiazko esku-hartzerik edo soluziorik zehaztu, ezta mugikortasun-agenteen egoera konpontzeko informazio berririk eman ere.

Horiek horrela, sinatzen duen zinegotziak honako kontrol mozio hau aurkezten du:

- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari negoziazio-prozesu bat abia dezala udal ordezkariak sindikalarekin eta langileen batzordearekin, mugikortasun-departamentu honetan dituen arazoei irtenbidea emango dien ibilbide-orri bat adosteko.
- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, udal sindikatuetakoa ordezkariarekin batera, Mugikortasun Saileko egoeraren diagnostikoa egitea (gaur egun sailak esleituta dauzkan auzoen eta bertan lanean aritzen diren agenteen arteko proportzioa eta auzoko zenbat agente aritzen diren lanean aldi berean), eta diagnostiko horren emaitzen arabera, lan-eremuak eta auzoak modu orekatuan berresleitzea, plantillan kontratatutako agente kopurua kontuan hartuz.

Donostian, 2022ko martxoaren 18an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldea